

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: 2006/87/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2006ko abenduaren 12koa, barne-nabigazioko ontzien baldintza teknikoak ezarri eta Kontseiluaren 82/714/EEE zuzentaraua indargabetzen duena.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «Directiva 2006/87/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 12 de diciembre de 2006, por la que se establecen las prescripciones técnicas de las embarcaciones de la navegación interior y se deroga la Directiva 82/714/CEE del Consejo» (*Diario Oficial de la Unión Europea*, L 389/1 de 30/12/2006).

**2006/87/EE ZUZENTARAU, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,
2006ko abenduaren 12koa**

**barne-nabigazioko ontzien baldintza teknikoak ezarri eta Kontseiluaren 82/714/EEE zuzentzaraua
indargabetzen duena**

(2006/87/EE)

**EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR
BATASUNAREN KONTSEILUAK**

Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatuak, eta, bereziki, haren 71. artikuluko 1. paragrafoa aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute ⁽¹⁾,

Kontsulta egin diote alde zuzenetik Eskualdeetako Komiteari,

Tratatuaren 251. artikuluan araututako prozedurari jarraiki ⁽²⁾,

Honako hauek kontuan hartuta:

(1) Kontseiluaren 82/714/EEE zuzentzaraua, 1982ko urriaren 4koa, barne-nabigazioko ontzien baldintza teknikoak ezartzen dituena ⁽³⁾, hain zuzen ere Estatu kide guztietan barne-nabigazioko ontzien ziurtagiri teknikoak igortzeko baldintza bateratuak ezartzen zituena, Rhin ibaiko nabigazioa salbuespen bakarra izanik.

Baina, hala eta guztiz ere, Europan baldintza tekniko ezberdinak aplikatzen jarraitu dira barne-nabigazioko ontzietan. Nazioarteko araudi eta herrialde-mailako araudi ezberdinak daudenez, orain arte zaila izan da atzerriko ontzi baten barne-nabigaziorako herrialde-mailako ziurtagiriak aintzatestea ontzi hori ikuskatu gabe. Gainera, 82/714/EEE zuzentzarauan jasotako arauak ez datoz bat teknikaren gaur egungo egoerarekin.

(2) 82/714/EEE zuzentzarauko eranskinetan jasotako baldintza teknikoek 1982an Rhineko Nabigaziorako Batzorde Nagusiak (CCNR) Rhin ibaiko ontziak ikuskatzeko araudiko xedapenak jasotzen ditu batez ere. Orduz geroztik, aldiro aldatuak izan dira, Rhin ibaian nabigatzeko Hitzarmen berrikusiko 22. artikulua araberan, barne-nabigaziorako ziurtagiriak igortzeko baldintza eta xedapen teknikoak. Adituen iritziz, baldintza eta xedapen tekniko horiek teknikaren egungo egoera islatzen dute. Eskumen- eta

segurtasun- baldintzak direla eta, eta araudia Europa osorako harmonizatzeko asmoz, baldintza tekniko horien aplikazio-eremua eta baldintza teknikoek edukia Europako Erkidegoan gertatzen den barne-nabigazio guztirako erabili behar da, eta, era berean, kontuan hartu behar dira baldintza horietan egin diren aldaketak.

(3) Komeni da barne-nabigazioko ziurtagiriek, ontziek aipatu diren baldintza teknikoak betetzen dituztela frogatzen dutenek, baliozkoak izatea Erkidegoko barne-bide nabigagarri guztietan.

(4) Komeni da estatu kideek gero eta harmonizazio-maila handiagoa izatea Europako Erkidegoko ziurtagiri osagarriak emateko, bai 1. eta 2. eremuatan (estuariotan) nabigatzeko, bai 4. eremuko bideetan nabigatzeko.

(5) Bidaiarien garraioaren segurtasuna indartzeko, 82/714/EEE zuzentzarauaren aplikazio-eremua zabaltzea komeni da, Rhin ibaiko ontzien ikuskapen-erregelamenduen antzera, hamabi bidaiari baino gehiagoko ontzietan ere aplikatzeko.

(6) Segurtasun handiagoa edukitzeko, arauak era zabalean harmonizatu behar dira, Europako Erkidegoko barne-bideetan segurtasun-arauak murriztu ez daitezten.

(7) Komeni da araubide iragankor bat ezartzea Europako Erkidegoko barne-nabigazio ziurtagiririk gabe nabigatzen ari diren ontzientzat lehen ikuskapen teknikoak egiten dutenerako, zuzentzarau honek ezarritako jarraibide tekniko berrikusien araupean.

(8) Europako Erkidegoko barne-nabigazioko ziurtagirien balio-denbora zehaztea komeni da; betiere, muga batzuk ezarrita, eta ontziaren sailkapenari erreparatuta, kasu zehatz bakoitzerako.

(9) Zuzentzarau hau betetzeko neurriak Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/468/EE Erabakiaren arabera onartu behar dira. Batzordeari esleituriko gauzatzeko eskumenak baliatzeko prozedurak ezartzen ditu erabaki horrek ⁽⁴⁾.

(10) Indarrean jarraitu behar dute Barne-nabigazioko ontzietarako igorritako ziurtagiriak elkar aintzatesteari buruzko Kontseiluaren 1976ko urtarrilaren 20ko 76/135/EEE zuzentzarauak ⁽⁵⁾ araututako neurriak, zuzentzarau honen aplikazio-

¹ C 157 EO, 1998.5.25, 17. or.

² Europako Parlamentuaren Irizpena, 1999ko irailaren 16koa (C 54 E EO, 2000.2.25ekoa, 79. or.), Kontseiluaren Jarrera Bateratua, 2006ko otsailaren 23koa (C 166 E EO, 2006.7.18, 1.or.) Europar Parlamentuaren Jarrera, 2006ko uztailaren 5koa (Egunkari Ofizialean oraindik ere argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2006ko urriaren 23koa.

³ L 301 EO, 1982.10.28koa, 1. or. Zuzentzarau horri egingako azken aldaketak 2003ko atxikitze-akta osatzen du.

⁴ L 184 EO, 1999.7.17koa, 23. or. 2006/512/EE Erabakiak (L 2000 EO, 2006.7.22koa, 11. or) aldatutako Erabakia.

⁵ L 21 EO, 1976.1.29koa, 10. or. Zuzentzarau horri azken aldaketa egin dio Batzordearen 78/1016/EEE zuzentzarauak (L 349 EO, 1978.12.13koa, 31.or)

eremutik at dauden ontzientzat.

(11) Aintzat hartuta badirela zenbait ontzi Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1994ko ekainaren 16ko 94/25/EE Zuzentarauaren —laketontzien inguruan estatu kideek lege eta araudi-xedapenak nahiz xedapen administratiboak bateratzeari buruzkoa⁽¹⁾— aplikazio-eremuan eta zuzentarau honen aplikazio-eremuan sartzen direnak, komeni da, ahal bezain laster, bi zuzentarauetako eranskinak dagozkion komite-prozeduren arabera egokitzea, baldin eta zuzentarau horien xedapenen artean kontraesan edo bateraezintasunik badago.

(12) Legegintza hobetzeko erakunde arteko Akordioako 34. puntuak adierazitakoa betetzeko⁽²⁾, bultzada bat eman behar zaie estatu kideei beren koadroak osa ditzaten, beren interesen eta Europar Batasunaren interesen alde, era horretan, ahal den heinean behintzat, transposizio-neurrien eta zuzendaritzaren arteko korrelazioa isla dadin.

(13) 82/714/EEE Zuzentaraua indargabetu behar da,

ZUZENTARAU HAU EMAN DUTE:

1. artikulua

Bide nabigarrien sailkapena

1. Zuzentarau honetarako, Europako Erkidegoko barne-bide nabigarriak era honetan sailkatuko dira:

a) 1, 2, 3, eta 4. eremuak:

i) 1. eta 2. eremuak: I. eranskineko 1. kapituluko zerrendan agertzen diren bide nabigarriak;

ii) 3. eremua: I. eranskineko 2. kapituluko zerrendan agertzen diren bide nabigarriak;

i) 4. eremua: I. eranskineko 3. kapituluko zerrendan agertzen diren bide nabigarriak;

b) R eremua: a) idatz-zatian aipatzen diren bide nabigarrien artean, Rhin ibaian nabigatzeko Hitzarmen berrikusiko 22. artikulua xedatutakoari jarraiki, ziurtagiria behar dutenak, eta zuzentarau hau indarrean sartzen den momentuan artikulua horrek izango duen idazketan.

2. Aldez aurretik Batzordeari kontsulta egin ondoren, edozein estatu kidek I. eranskineko zerrendetan ageri diren eremuetako bide nabigarrien sailkapena aldatzeko aukera izango du. Aldaketa horiek Batzordeari jakinaraziko zaizkio, indarrean jarri baino sei hilabete lehenago gutxienez; eta gainontzeko estatu kideei ere emango zaie aldaketa horien berri.

¹ L 164 EO, 1994.6.30koa, 15. or. Zuzentarau horri azken aldaketa egin dio 1882/2003 (EE) Erregelamenduak (L 284 EO, 2003.10.31koa, 1.or)

² C 321 EO, 2003.12.31 1. or.

2. artikulua

Aplikazio-eremua

1. II. eranskineko 1.01 artikulua xedatutakoari jarraiki, zuzentarau hau ontzi hauei aplikatuko zaie:

a) 20 metroko edo gehiagoko luzerako (L) ontziei;

b) Luzera (L), zabalera (B) eta zingoaren (T) biderkadura 100 m^3 -koa edo handiagoa duten ontziei.

2. II. eranskineko 1.01 artikulua xedatutakoari jarraiki, zuzentarau hau ontzi hauei ere aplikatuko zaie:

a) atoiontzi eta ontzi bultzatzailei, 1. paragrafoan aipatutako ontziak atoian eraman edo bultzatzeko badira; edota ekipo flotatzailei, ontzi edo ekipo flotatzaile horiek atrakatzeko badira.

b) bidaiariak garraiatzeko ontziei, baldin eta 12 bidaiari edo gutxiago garraiatzen badituzte, tripulazioa kontuan hartu gabe;

c) ekipo flotatzailei.

3. Zuzentarau honen aplikazio-eremutik kanpo daude ontzi hauek:

a) transbordadoreak,

b) ontzi militarrik,

c) ontziak; atoiontziak eta bultzagailuak barne, baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte:

i) ibai-itsaso arteko uretan nabigatzen badute eta bertan porturatzen badira;

ii) barne-uretan soilik aldi baterako nabigatzen ari direnak, baldin eta elementu hauek badituzte:

— Itsasoan giza bizia segurtatzeko nazioarteko hitzarmena (SOLAS, 1974) betetzen duela frogatzen duen ziurtagiria edo agiri horren baliokidea; zama-lerroei buruzko 1966ko Nazioarteko Hitzarmenak xedatutakoa betetzen duela frogatzen duen ziurtagiria edo agiri horren baliokidea, eta hidrokarburu bidezko kutsaduraren prebentziorako (IOPP) nazioarteko ziurtagiri bat, hain zuzen ere ontzi bidezko kutsaduraren prebentziorako 1973ko Nazioarteko Hitzarmena (MARPOL) betetzen duela frogatzeko; edo

— lehen marratxoan aipatzen diren hitzarmen horietan guztietan agertzen ez diren bidaiaridun ontzien kasuan, bidaiaridun ontzietarako segurtasun-neurri eta -arauen ziurtagiria, Kontseiluaren 1998ko martxoaren 17ko 98/18/EE zuzentarauaren arabera; zuzentarau horrek, berariaz, bidaiaridun ontzietan aplikagarriak diren segurtasun-neurri eta -arauak zehazten ditu⁽³⁾; edo

³ L 144 EO, 1998.5.15koa, 1. or. Zuzentarau horri azken aldaketa egin dio Batzordearen 2003/75/EE zuzentarauak (L

— lehen marratxoan aipatzen diren hitzarmenetatik kanpo dauden laketontzien kasuan, ontziaren banderaren herrialdeak igorritako ziurtagiri bat beharko da.

3. artikulua

Ziurtagiria eramateko obligazioa

1. 1. artikuluan aipatutako ontziek, Europako Erkidegoko barne-bide nabigagarrietan nabigatzen badute, agiri hauek eduki behar dituzte ontzian:

a) R eremuko bide batean nabigatzen badute:

— Rhin ibaian nabigatzeko Hitzarmen berrikusiko 2. artikulua xedatutako moduan emandako ziurtagiria;

— edo 2008ko abenduaren 30etik aurrera igorri edo berritutako barne-nabigaziorako ziurtagiria, Europako Erkidegokoa. Ziurtagiri horrek, II. eranskineko 24. kapituluan jasotako behin-behineko xedapenak alde batera utzita, behar bezala kreditatu behar du ontzi horrek II. eranskinean jasotako baldintza teknikoak betetzen dituela; hau da, arau eta prozedura aplikagarrien arabera, lehen aipatutako Hitzarmenak aplikatutako baldintza tekniko baliokideak betetzen dituela;

b) beste bide nabigagarri batzuetan nabigatzen badute, Europako Erkidegoko barne-nabigaziorako ziurtagiria, eta, hala badagokio, 5. artikuluan aipatutako ezaugarri teknikoak bete behar dituzte.

2. Barne-nabigaziorako Europako Erkidegoaren ziurtagiria V. eranskineko I. paragrafoan ageri den ereduaren arabera osatuko da, eta zuzentarau honetan xedatutakoaren arabera egingo da.

4. artikulua

Barne-nabigaziorako Europako Erkidegoaren ziurtagiri osagarriak

1. Rhin ibaian nabigatzeko hitzarmen berrikusiko 2. artikulua arabera igorritako ziurtagiri baliozkoa daramaten ontziek, aukera izango dute, zuzentarau honetako 5. artikuluko 5. paragrafoan xedatutakoari jarraiki, Europako Erkidegoko bide nabigagarrietan nabigatzeko, ontzian ziurtagiri hori bakarrik eramanda.

2. Hala ere, 1. paragrafoan aipatutako ziurtagiria ontzian daramaten ontziei Europako Erkidegoko ziurtagiri osagarri bat gehiago emango zaie, barne-nabigaziorako, kasu hauetan:

a) 3. eta 4. eremuetako bide nabigagarrietan nabigatzen dutenean, bide nabigagarri horiei dagokien baldintza tekniko murriztapena erabili nahi badute;

b) 1. eta 2. eremuetako bide nabigagarrietan nabigatzen dutenean edo, bidaiariak garraiatzeko ontziak badira eta 3. eremuko bide nabigagarrietan nabigatzen badute, bide horiek ez badaude lotuta beste estatu kide bateko barne-nabigaziorako bideekin, eta Estatu kide horrek, 5. artikuluko 1., 2. eta 3. paragrafoetan xedatutakoari jarraiki, bide nabigagarri horietarako baldintza tekniko osagarriak onartu baditu.

3. Barne-nabigaziorako ziurtagiri gehigarria V. eranskineko II. paragrafoan zehaztutako ereduaren arabera idatziko da, eta horretarako eskumena duten erakundeek igorriko dute, alde aurretik 1. paragrafoan aipatutako ziurtagiria aurkeztu eta gero. Azken ziurtagiri hori kasu bakoitzeko bide nabigagarriaren erakunde eskudunek ezarritako baldintzen arabera igorriko da.

5. artikulua

Baldintza tekniko gehigarriak edo murriztuak eremu jakin batzuetarako

1. Estatu kide guztiek, alde aurretik Europako Batzordeari kontsulta egin ondoren, eta betiere, Rhin ibaian nabigatzeko hitzarmen berrikusian xedatutako baldintzak betez, II. Eranskineko baldintza teknikoekiko osagarriak izango diren baldintzak onartuz beren lurraldean kokatutako 1. eta 2. eremuko bide nabigagarrietan nabigatzen duten ontzientzat.

2. Bidaiaridun ontziek beren lurraldean kokatutako 3. eremuko bide nabigagarrietan nabigatzen badute, eta bide nabigagarri horiek beste estatu kide bateko bide nabigagarriekin loturarik ez badute, estatu kideek aukera izango dute II. eranskinean ageri diren baldintza osagarriak mantentzeko. Baldintza tekniko horiek aldatzeko, Batzordeak baimena eman behar du alde aurretik.

3. Baldintza gehigarri horiek III. eranskinean xedatutako alderdietarako izango dira soilik. Baldintza gehigarriak indarrean jarri baino 6 hilabete lehenago, gehienez, Batzordeari indarrean jarri direla jakinaraziko zaio, eta Batzordeak gainontzeko estatu kideei jakinaraziko die hori.

4. Baldintza gehigarri horiek betetzen direla zehaztu behar da, bai 3. artikuluan aipatutako barne-nabigaziorako ziurtagirian, eta bai 4. artikuluko 2. paragrafoan aipatutako barne-nabigaziorako Europako Erkidegoko ziurtagiri osagarrian. Baldintza osagarri horien ziurtagiria dagokion eremuko Europako Erkidegoko bide nabigagarrietan aintzatetsiko da.

5. a) II. eranskineko 24 bis kapituluan xedatutako xedapen iragankorrak aplikatu ondoren, segurtasun-arau nazionalak gutxitzen badira, estatu kideen eskubidea izango da xedapen iragankor horiek ez aplikatzea gainerako estatu kideetako bide nabigagarriekin lotu gabeko barne-bide nabigagarrietan nabigatzen duten bidaiaridun ontziei. Egoera hori gertatzen bada, estatu kide horrek,

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2008ko abenduaren 30etik aurrera, II. eranskinean xedatutako baldintza teknikoak betetzea eska diezaieke beste bide nabigagarriekin lotu gabeko bere barne-bide nabigagarrietan nabigatzen duten ontziei.

b) Horren harian, a) idatz-zatiko xedapena aplikatzen duten estatu kideek erabaki hori Batzordeari jakinaraziko diote, eta beren lurraldeko barne-nabigazioko bideetan bidaiaridun ontziek bete beharreko segurtasun-arau nazionalen buruzko xehetasunak emango dizkiote. Batzordeak gainerako estatu kideei jakinaraziko die erabaki hori.

c) Hirugarren artikuluan aipatutako barne-nabigaziorako Europako Erkidegoko ziurtagirian, edo, 4. artikuluko 2. paragrafoa aplikagarria denean, barne-nabigaziorako Europar Erkidegoko ziurtagiri osagarrian, hau zehaztu behar da: bete egiten direla beste estatu kideetakoekin lotu gabeko barne-nabigaziorako bideetan nabigatzeko estatu kideak ezarri dituen baldintzahorietan.

6. Soilik 4. eremuko bide nabigagarrietan nabigatzen duten ontziek hartu ahal izango dituzte II. eranskineko 19. kapituluko baldintza murriztuak, eremu horretako bide nabigagarri guztietan. Baldintza murriztu horiek behar bezala betetzen direla 3. artikuluan aipatutako barne-nabigaziorako Europako Erkidegoko ziurtagirian zehaztu behar da.

7. Estatu kideek, Batzordeari kontsulta egin ondoren, II. eranskineko baldintza teknikoak murriztea baimen dezakete, soilik beren lurraldeko 3. eta 4. eremuetako bide nabigagarrietan nabigatzen duten ontzientzat.

Baldintza horiek IV. eranskinean aipatutako alderdietan bakarrik murriztu ahal izango dira. Ontzien baldintza teknikoak baldintza tekniko murriztuekin bat badatoz, hori ere barne-nabigaziorako Europako Erkidegoko ziurtagirian zehaztuko da, eta 4. artikuluko 2. paragrafoan aipatutako kasuan, berriz, barne-nabigaziorako Europako Erkidegoko ziurtagiri osagarrian.

II. eranskineko baldintza teknikoak murrizten badira, Batzordeari eman behar zaio murriztapen horren berri, hura indarrean jarri baino sei hilabete lehenago, beranduenez. Batzordeak gainerako estatu kideei jakinaraziko die aldaketa hori egin dela.

6. artikulua

Merkantzia arriskutsuak

Rhin ibaian Substantzia Arriskutsuak Garraiatzeko Erregelamenduak xedatutako moduan igorritako ziurtagiria duen ontzi orok, Europako Erkidego osoan substantzia arriskutsuak garraiatu ahal izango ditu; betiere, ziurtagiri horretan aipatzen diren baldintzak beteta.

Estatu kideek beren lurraldean substantzia arriskutsuak garraiatzea debekatu diezaiekete ziurtagiri hori ez duten ontziei, baldin eta zuzentarau honetan zehaztatutako baldintza osagarri batzuk betetzen ez badituzte. Batzordeari jakinaraziko

zaizkio xedapen horiek, eta Batzordeak gainerako estatu kideei jakinaraziko dizkie.

7. artikulua

Salbuespenak

1. Estatu kide guztiek zuzentarau honen eduki osoaren edo haren zati baten albuespenak eman ditzakete:

a) ontzi, atoi ontzi, ontzi bultzatzaile eta ekipa flotagarrientzat, baldin eta beste estatu kide bateko bide nabigagarrietara lotu gabeko barne-nabigazioko bideetan nabigatzen badute;

b) 350 tona baino gutxiagoko pisu hila duten ontzientzat, edo merkantziak garraiatzeko erabiltzen ez diren ontzientzat, baldin eta azken horien desplazamendua 100 m³ baino txikiagoa bada, 1950eko urtarrilaren 1a baino lehenago egin badira, eta soilik estatu kidearen ur nazionaletan nabigatzen badute.

2. Beren ur nazionaletan nabigatzen duten ontziei dagokienez, estatu kideek zuzentarau honetako xedapen batean edo gehiagotan albuespenak baimen ditzakete, tokian-tokian interesekoak izan daitezkeen bidaia mugatuentzat edo portu-eremu jakinetan. Ontziaren ziurtagirian zehaztuko dira albuespenak eta albuespen horiek zer bidaia edo eremutan izango diren baliozko.

3. Batzordeari jakinaraziko zaizkio 1. eta 2. paragrafoetan xedatutakoari jarraituz egindako albuespenak, eta Batzordeak, halaber, gainerako estatu kideei jakinaraziko dizkie.

4. Estatu kideek, 1. eta 2. paragrafoetan xedatutakoari jarraituta ezartzen dituzten albuespenak direla-eta, ez badute beren ur nazionaletan zuzentarau honen xedapenak betetzera behartuta dagoen ontzirik, ez dute 9., 10. eta 12. artikuluetan xedatutakoa bete beharrik izango.

8. artikulua

Barne-nabigaziorako Europako Erkidegoko ziurtagiriak egitea

1. Barne-nabigaziorako Europar Batasuneko ziurtagiria 2008ko abenduaren 30etik aurrera egindako ontziei emango zaie. Horretarako, ontziak zerbitzu-egoeran jarri baino lehen, ikuskapen tekniko bat egingo zaie, II. eranskinean xedatutako baldintza teknikoak betetzen ote dituzten egiaztatzeko.

2. Barne-nabigaziorako Europako Erkidegoko ziurtagiria emango zaie, 82/714/EEE zuzentarauaren aplikazio-eremutik kanpo dauden, baina, zuzentarau honetako 2. artikuluko 1. eta 2. paragrafoek xedatutakoari jarraiki, zuzentarau honen baitan sartzen diren ontziei. Ziurtagiria lortzeko, ikuskapen teknikoa egingo zaie ontziei, haien egungo ziurtagiriaren indarraldia amaitu ostean, baina dena

dela, 2018ko abenduaren 30a baino lehen, II. eranskinean zehaztutako baldintza teknikoak betetzen direla egiaztatzeko. Ontzien egungo ziurtagiri nazionalen epea bost urtekoa baino laburragoa den estatu kideetan, aipatutako ziurtagiriak, 2008ko abenduaren 30etik aurrera, hurrengo bost urteen barruan egin ahal izango dira.

Barne-nabigaziorako Europako Erkidegoko ziurtagirian zehaztuko da II. eranskinean adierazitako zer baldintza ez diren betetzen. Agintari eskudunek uste badute baldintza horiek urratzeak ez duela arrisku nabaririk sortzen, lehen paragrafoan aipatutako ontziek zerbitzu-egoerari eutsi diezaioke, harik eta xedapenekin bat egiten ez duten elementuak edo eremuak aldatu arte. Elementuak aldatzean, bete egin beharko dituzte II. eranskinean xedatutako baldintzak.

3. Artikulu honetan xedatutakoaren harian, arrisku nabariak sortzen direla usteko da, baldin eta urratu egiten badira ontziaren sendotasuna, haren nabigazio eta maniobragarritasuna eta II. eranskinean aipatutako gainerako ezaugarri bereziak. II. eranskinean baimendutako salbuespenak ez dira joko arrisku nabaria sortzen duten gabeziatzat.

Ohiko konponketa eta ikuskapenetan diseinu bereko edo antzeko diseinu eta teknologikoak piezak ordeztzea ez da artikulu honetan aipatutako ordezen-lantzat joko.

4. Artikulu honetako 1. eta 2. paragrafoetan xedatutako ikuskapen teknikoetan egiaztatuko da, beharrezkoa bada, ontziek 5. artikuluko 1., 2., eta 3. paragrafoetan aipatzen diren xedapen osagarriak betetzen dituzten, edo, hala egiten ez bada, armadoreak eskatutako ikuskapen teknikoan.

9. artikulua

Agintari eskudunak

1. Estatu kideetako agintari eskudunek barne-nabigaziorako ziurtagiriak egin ahal izango dituzte.
2. Estatu kideek zerrenda bat egingo dute, barne-nabigaziorako ziurtagiriak egiteko erakunde eskudunen berri emateko, eta jarraian Batzordeari bidaliko diote zerrenda hori. Batzordeak zerrenda hori gainerako Estatu kideei jakinaraziko die.

10. artikulua

Ikuskapen teknikoak

1. Agintari eskudunek egingo dute 8. artikuluan xedatutako ikuskapen teknikoak, baina agintari eskudun horiek ontziari ikuskapen tekniko osoa edo ikuskapenaren zati bat egiteari uko egin diezaioke, baldin eta ontziak aurretiaz lortua badu baliozko ziurtagiri bat, II. eranskineko 1.01 puntuan adierazitako sailkapen-sozietate batek emandakoa, eta agerikoa bada ontzi horrek II. eranskinean xedatutako baldintza teknikoak erabat edo zati batean betetzen dituela.

VII. eranskinaren I. zatiko zerrendan aipatutako irizpideak betetzen dituzten sailkapen-sozietateak soilik onartuko dira.

2. Estatu kideek zerrenda bat egingo dute ikuskapen teknikoak egiteko agintari eskudunen berri emateko, eta Batzordeari bidaliko diote. Batzordeak zerrenda hori gainontzeko estatu kideei jakinaraziko die.

11. artikulua

Barne-nabigaziorako Europako Erkidegoko ziurtagirien balioa

1. II. eranskinean xedatutakoari jarraiki, agintari eskudunek zehaztuko dute, kasu bakoitzerako, barne-nabigaziorako Europako Erkidegoko ziurtagiriak izango duen balio-epea.

2. II. eranskineko 12. eta 16. artikuluetan zehaztutako kasuetan, estatu kide guztiek egin ahal izango ditu barne-nabigaziorako Europako Erkidegoko behin-behineko ziurtagiriak. Barne-nabigaziorako behin-behineko ziurtagiriak V. eranskineko III. zatian xedatutako ereduak adierazitako moduan egingo dira.

12. artikulua

Barne-nabigaziorako Europako Erkidegoko ziurtagiriak ordeztzea

Estatu kide bakoitzak zehaztuko ditu zer baldintza bete beharko diren barne-nabigaziorako Europako Erkidegoko ziurtagiri baliozkoak ordeztzeko, baldin eta horiek galdu edo hondatu egin badira.

13. artikulua

Barne-nabigaziorako Europako Erkidegoko ziurtagiriak berritzea

1. Barne-nabigaziorako Europako Erkidegoko ziurtagiria haren balio-epea amaitzean berrituko da; betiere, 8. artikuluko xedatutako baldintzak betez.
2. 2008ko abenduaren 30a baino lehen egindako barne-nabigaziorako Europako Erkidegoko ziurtagiriak berritzeko, II. eranskineko xedapen iragankorrak balia daitezke.
3. 2008ko abenduaren 30aren ondoren egindako barne-nabigaziorako Europako Erkidegoko ziurtagiriak berritzeko, II. eranskineko xedapen iragankorrak aplikatu daitezke, baldin eta ziurtagiri horiek eman ondoren indarrean sartu badira.

14. artikulua

Barne-nabigaziorako Europako Erkidegoko ziurtagirien balioa luzatzea

Salbuespen gisa, barne-nabigaziorako Europako Erkidegoko ziurtagiria egin edo berritu duen erakundeak haren balio-epea luzatu ahal izango du, II. eranskinean xedatutako ikuskapen teknikoak egin gabe. Erkidegoko ziurtagirian adieraziko da luzapena.

15. artikulua

Barne-nabigaziorako Europako Erkidegoko ziurtagiri berriak egitea

Ontziaren egituraren sendotasuna, ontziaren nabigagarritasuna, haren maniobra-ahalmena edota II. eranskinean aipatutako ezaugarri bereziak aldatzen dituzten lanak edo konponketak egiten badira, berriro egin beharko zaio ontziari 8. artikuluan xedatutako ikuskapen teknikoak, edozein bidaia egin baino lehen. Ikuskapen hori egin ondoren, eta, ontziaren ezaugarri berriei erreparatuta, ontziak indarrean duen ziurtagiria egokituko da, edo, bestela, barne-nabigaziorako Europako Erkidegoko ziurtagiri berria egingo zaio. Ziurtagiri hori hasierako ziurtagiria egin edo berritu zuen estatu kidea ez den beste estatu kide batek egiten badu, hilabete bat igaro baino lehen jakinaraziko dio gertaera hori jatorrizko ziurtagiria egin edo berritu zuen estatu kideko agintari eskudunari.

16. artikulua

Ziurtagiriak ukatzea edo ez berritzea eta barne-nabigaziorako Europako Erkidegoko ziurtagiriak kentzea

Barne-nabigaziorako ziurtagiria ukatzeko edo ez berritzeko erabakia hartzen bada, horren zergatiak azaldu beharko dira.

Ontziaren jabeari jakinarazi behar zaio ziurtagiria ukatu egin zaiola edo ez zaiola berritu, eta, horrez gain, dagokion estatu kidean indarrean dauden errekurso-bideen eta horien epeen berri emango zaio.

Barne-nabigaziorako Europako Erkidegoko ziurtagiri balioduna egin edo berritu duen edozein agintari eskudunek erretira dezake ziurtagiria, baldin eta ziurtagirian zehaztutako baldintza teknikoak betetzeari uzten badio ontziak.

17. artikulua

Ikuskapen gehigarriak

VIII. eranskinean xedatutakoari jarraiki, estatu kide bateko agintari eskudunek edozein momentutan egiaztatu ahal izango dute ontzi batek zuzentarau honetan xedatutakoaren arabera baliodun ziurtagiri bat ote duen, baita ontziak ziurtagiri horretan zehaztutako baldintzak betetzen ote dituen ere, edota ontzia bera bertan bidaiatzen duten pertsonentzat, ingurumenerako edo nabigaziorako arriskutsua ote den ikusteko. Agintari eskudunek hartuko dituzte, VIII. eranskinak xedatutakoari jarraiki, beharrezkoak izan daitezkeen neurriak.

18. artikulua

Hirugarren herrialdeetako ontzien nabigazio-ziurtagiriak aintzatestea

Europar Batasunaren eta hirugarren herrialdeen artean nabigatzeko ziurtagiriak elkarren artean

aintzatesteko hitzarmenak oraindik adostu ez direnez, estatu kide bakoitzeko agintaritzak eskudunek hirugarren herrialdeetako nabigazio-ziurtagiriak aintzatsi ahal izango dituzte, beren lurraldeko bide nabigagarrietan nabigatzeko.

Zortzigarren artikuluko 1. paragrafoan xedatutakoa bete behar da, hirugarren herrialdeetako ontziei barne-nabigaziorako Europako Erkidegoko ziurtagiriak egiteko.

19. artikulua

Komitearen prozedura

1. Batzordeak, barne-nabigaziorako bidaiari eta merkantzia-ontzien patroien herrialde-mailako tituluak elkar aintzatesteari buruzko Kontseiluaren 1991ko abenduaren 16ko 91/672/EEE Zuzentarauaren⁽¹⁾ 7. artikuluan arabera ezarritako Komitearen laguntza izango du (aurrerantzean «Komitea» esango zaio).

2. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE erabakiko 3. eta 7. artikulua aplikatuko dira, 8. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

20. artikulua

Eranskinak egokitzea eta behin-behineko ziurtagiriei buruzko gomendioak

1. Batzordeak aldaketak egin behar baditu zuzentarau honetako eranskinak aurrerapen teknikoek egokitzeko edo nazioarteko beste erakunde batzuen lanen ondorioz sortutako egoera berrietara egokitzeko, bereziki, Rhin Ibaiko Nabigaziorako Batzorde Nagusiak (CCNR) egindako lanek sortutakoetara, 3. artikuluko 1. paragrafoa a) idatz-zatiak adierazitako bi ziurtagiriak emango direla bermatzeko, segurtasun-maila baliokide bat zehazteko baldintza teknikoak aintzat hartuta, edo, 5. artikuluan aipatutako egoerak kontuan hartzeko, 19. artikuluko 2. paragrafoan zehaztutako prozeduraren arabera egingo ditu.

Aldaketa horiek azkar egin behar dira, barne-nabigaziorako Europako Erkidegoko ziurtagiria (Rhin ibaian nabigatzeko aintzatsia) emateko baldintza teknikoek segurtasun-maila jakin bat emango dutela bermatzeko. Segurtasun-maila horrek, hain justu, Rhin ibaian nabigatzeko Hitzarmen Berrikusiko 22. artikulua aipatzen duen ziurtagiria emateko eskatzen den segurtasun-mailaren parekoa izan behar du.

2. Batzordeak erabakiko du, II. eranskineko 2.19. artikulua xedatutakoari jarraiki, Komiteak barne-nabigaziorako Europako Erkidegoko behin-behineko ziurtagiriak egiteko eman beharreko gomendioei buruz.

¹ EO L 373, 1991.12.31koa, 29. or. Zuzentarau horri azken aldaketa egin dio 1882/2003 (EE) Erregelamenduak.

21. artikulua

76/135/EEE zuzentarauak indarrean jarraitzea

Zuzentarau honen 2. artikuluko 1. eta 2. paragrafoetako aplikazio-eremuetatik kanpo dauden ontziei 76/135/EEE zuzentaraua aplikatuko zaie, baldin eta aplikagarria bazaie zuzentarau horren 1. artikuluko a) idatz-zatia.

22. artikulua

Herrialde-mailako baldintza gehigarriak edo murrizpenak

Estatu kideetan 2008ko abenduaren 30a baino lehen indarrean dauden xedapen osagarriek —ontziek bere lurraldean 1. eta 2. eremuko bide nabigagarrietan nabigatu ahal izateko— edo estatu kide batean, aipatutako data hori baino lehen, ontziek 3. eta 4. eremuetan estatu horretako bide nabigagarrietan nabigatzeko indarrean zeuden xedapen tekniko murriztuek indarrean jarraituko dute harik eta indarrean sartzen diren arte II. eranskineko 5. artikuluko 1. paragrafoan xedatutako xedapenak edo II. eranskineko xedapen teknikoetako 5. artikuluko 7. paragrafoan zehaztutako murrizpenak, baina, betiere, 2009ko ekainaren 30a arte baino ez.

23. artikulua

Barne-zuzenbidean txertatzea

1. Estatu kideek, baldin eta 1. artikuluko 1. paragrafoan adierazitako bide nabigagarriak badituzte, legeak, erregelamenduak eta administrazio-xedapenak ezarri behar dituzte, zuzentarau hau indarrean sar dadin 2008ko abenduaren 30etik aurrera. Arau horiek eman bezain laster emango diote estatuek haien berri Batzordeari.

Estatu kideek xedapen horiek ematen dituztenean, zuzentarau honi egin beharko diote erreferentzia, edo, hala ez bada, beren argitalpen ofizialean egingo dute erreferentzia hori. Estatu kideek zehaztuko dituzte erreferentzia horiek egiteko modalitateak.

2. Estatu kideek berehala jakinaraziko diote Batzordeari zuzentarau honek araututako esparruan ematen dituzten barne-zuzenbideko xedapenen testua. Batzordeak gainerako estatu kideei jakinaraziko dizkie aldaketa horiek.

24. artikulua

Zehapenak

Estatu kideek zehapen-erregimen bat zehaztu behar dute, zuzentarau hau aplikatzeko ematen dituzten herrialde-mailako xedapenak urratzean ezar daitezkeen zehapenak erabakitzeko. Horrez gain, zehapen-erregimena aplikatuko dela bermatzeko neurriak hartuko dituzte. Zehapen horiek eraginkorrak, proportzionatuak eta disuasiozkoak izan behar dute.

25. artikulua

82/714/EEE zuzentaraua indargabetzea

82/714/EEE zuzentarauak ez du indarririk izango 2008ko abenduaren 30etik aurrera.

26. artikulua

Indarrean sartzea

Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratzen den egunean bertan sartuko da indarrean zuzentarau hau.

27. artikulua

Hartzaileak

Estatu kideak dira zuzentarau honen hartzaileak, 1. artikuluko 1. paragrafoan xedatutako barne-bide nabigagarriak dituzten heinean.

Estrasburgon emana, 2006ko abenduaren 12an.

Europako Parlamentuaren izenean
Presidentea

Josep BORRELL FONTELLES

Kontseiluaren izenean
Presidentea

Mauri PEKKARINE